

JAUNAK NAHI DUEN BEZALA

J.B. Johnsonen gutuna hartu baino hiru segundo lehenago, itsas adarbakarraren bila joatea urrun zegoen nire burutik. Baina gutuna irakurri eta berehala, konturatu nintzen nire benetako patua, nire bizitzako helburu bakarra, munstro ezezagun hura harrapatzea eta mundua haren arriskutik babestea zela. Gehiago pentsatu gabe, onartu egin nuen Amerikako gobernuaren proposamena.



—Conseil! —oihu egin nuen irrikaz. Conseil nire zerbitzaria zen. Toki guztietara laguntzeko prest zegoen beti, eta sobera itzultzen zidan ematen nion maitasuna; mutil lasaia, ordenatua eta arduratsua zen; ez zen ezergatik ikaratzen, eta edozer egiteko gauza zen.

Gure giroko jakintsuekin izan zituen harremanei esker, aditu bihurtu zen, eta oso jakituna zen historia naturalaren eremuko sailkapenean, nahiz eta inongo alderditan sakontzeko aukerarik ez izan. Edozein modutan ere, adoretua eta mutil ona zen, benetan! Ez zen inoiz kexatzen, eta ez zuen oztoporik jartzen herrialderik urrunenera joateko mailetak prestatu behar zirenean. Horrez gainera, sasoi betean zegoen, eta gihar sendoak zituen. Hogeita hamar urte zituen, nik baino hamar gutxiago. Nirekin joateko prest ote zegoen galdetu nahi izan nion, eginkizun hura arriskutsua zen eta.

—Conseil. —deitu nion.

Laster agertu zen.

—Deitu egin al dit jaunak? —esan zuen sartzean.

—Bai, mutil. Presta zaitez, eta prestatu nire gauzak ere. Bi ordu barru irtengo gara.

—Jaunak nahi duen bezala. Eta bildumak? Zer egingo dugu bildumekin?

—Dena Frantziara bidaltzeko aginduko dut.

—Ez goaz Parisera, ala? —galdetu zuen Conseilek, zirkinik egin gabe.

—Bai..., jakina... —erantzun nuen—. Baina itzulingurua egingo dugu.


—Berorrek nahi duen itzulingurua.

—Zera, munstroa..., zorioneko narbal hori... Garbitu egingo dugu! Farragut komandantearekin ontziratu eta haren bila joango gara. Ospe handiko eginkizun izango da, baina... arriskutsua ere bai. Ez dakigu nora joango garen.

—Jauna nora, neu ere hara —esan zuen Conseilek.

—Ez dizut ezer ezkutatu nahi: baliteke bidaia honetatik ez itzultzea ere.

Ordu laurdenean, prest zeuden gure gauzak. Beste ordu laurden batean, Broadwayko kaira iritsi eta Abraham Lincoln itsasontzira hurbildu ginen, haren bi tximiniak ke beltza botatzen ari zirela. Berehala eraman zituzten gure gauzak fragatarara, eta gu haien atzetik igo ginen.



Aukeratu galdera bakoitzeko erantzun egokia eta azaldu zergatik aukeratu duzun erantzun hori:

1) Testua laburbiltzen duen esaldirik egokiena hautatu:

- a) Aronnax eta Conseil fragatara bidaia egiteko igotzen dira.
- b) Aronnaxek hartu berri duen erabakia helarazten dio Conseili.
- c) Conseilek asko zekien espezie ezberdinen zientzia sailkapenaz.
- d) Zalantzarik gabe Conseil bere lana betetzeko pertsona egokia zen.

ARRAZOIA:

2) Zer esan nahi du “patua” hitzak:

- a) Esperientzia eta ikasketa luzez lortzen den jakintza.
- b) Besteen bizitzaren behaketatik ikasten dena.
- c) Geroko gertoerak aurretik idatzirik zeudela.
- d) Kontrolatu ezin daitekeen beldurra.

ARRAZOIA:

3) Zenbat urte zituen Pierre Aronax irakasleak:

- a) Hogeita hamar urte
- b) Hogei urte
- c) Berrogei urte.
- d) Berrogeita hamar urte.

ARRAZOIA:

4) Zein da testuak azaldutako ordenari erreparatuz egokia.

- a) Atera baino hiru ordu lehenago ez zekiten bidaia egingo zutenik
- b) Zuzenean Parisera joan eta hortik mundutik itzulinguru bat emango zuten.
- c) Maletak igo zitzaizen utzita fragatan sartu ziren.
- d) Conseilek zuen zientzia gaitasunengatik jakintsu asko ezagutu zituzten.

ARRAZOIA:

5) Zer esan nahi du hurrengo esaldiak: “Horrez gainera, sasoi betean zegoen...”

- a) Behar zituena baino kilo gehiago zituela.
- b) Zaharra zela eta fisikoki antzematen zitzaiola.
- c) Zeraman arropa txikia zela bere gorputzarekin alderatuz.
- d) Osasuntsu eta indartsu zegoela.

ARRAZOIA:

6) Hauetako zein esaldi ez dira zuzenak.

- a) Aronnax narbala hiltzeko intentzio zuen.
- b) Conseilek ez zuen inolako arazorik bere nagusiarekin edonora joateko.
- c) Hasiera hasieratik animaliaaren bila joan behar zuela zekien.
- d) Aronnax badaki arriskua dela eta bidai honetan hil daitezkeela.

ARRAZOIA:
